Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko uztailaren 16a, osteguna — 134 — Jueves, a 16 de julio de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## BEASAINGO UDALA

*Bertako produktuak merkaturatzeko eta kontsumoa sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak. 2020. urtea. BDNS (Identif.): 508778.*

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke:

(http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans).

1. *Dirulaguntzaren xedea.*

Hilabete hasierako larunbateko udal merkatua tokiko produktuekin sustatzeko laguntzak arautzea.

2. *Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak.*

Ustiategi bakoitzeko onuradun bakarra izan ahalko da. Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da honako baldintza bereziak betetzen dituena:

— Hilean behin lehen larunbatean izaten den azokara baserri-produktuak saltzera etortzen dena eta honako baldintzak betetzen dituena:

a) Fruta eta barazki salmentetan, garaian garaiko produktuak eskainiko dira. Gutxienez: 3 produktu.

b) Bestelako produktuetan ez da kopuru minimorik ezarriko, hau da: gazta, eztia, ogia...

c) Seihilabetekoan, gutxienez 4 larunbatetan saldu behar dute. Horren jarraipena Udaleko teknikari batek egingo du.

d) Ekoizleek produktuen izena eta prezioa jartzen duten arbeltxoak jarri behar dituzte euren postuetan.

3. *Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

Ekoizle bakoitzak azokan parte hartutako larunbat bakoitzaren truke 50 € jasoko ditu.

4. *Eskaerak non eta noiz aurkeztu.*

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2020-11-30ean amaituko.

*Epea:* Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2020-11-30era bitartean.

*Modua:* Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: http:// www.beasain.eus/es/bulego-birtuala edo Udalaren erregistroan, I. eranskineko ereduaren arabera.

Beasain, 2020ko ekainaren 3a.—Aitor Aldasoro Iturbe, alkatea. (3319)

## AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

*Bases para la concesión de subvenciones para fomentar la comercialización y consumo de productos locales. Año 2020. BDNS (Identif.): 508778.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones:

(http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans).

1. *Objeto de la subvención.*

Regular ayudas para fomentar el mercado municipal de los sábados de primeros de mes con productos locales.

2. *Requisitos para solicitar la subvención.*

Únicamente habrá un beneficiario por explotación. Se considerará beneficiario de la subvención a quien cumpla las siguientes condiciones:

— Venta de productos de caserío en el mercado municipal que se celebra el primer sábado de cada mes, siempre que:

a) En la venta de fruta y verdura se ofrecerán productos de temporada. Mínimo: 3 productos.

b) En otros productos, tales como, pan, queso, miel etc., no se establecen mínimos.

c) La asistencia al mercado, será como mínimo, de 4 sábados al semestre. El seguimiento de ello lo realizará un técnico del Ayuntamiento.

d) Los productores, en los puestos colocarán pizarras con el nombre del producto y el precio.

3. *Importe de la subvención.*

Cada productor recibirá 50 € por cada sábado que haya tomado parte en el mercado.

4. *Plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

Las bases se remitirán a la BDNS y a partir del del día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa empezará a contar el plazo para presentar las solicitudes que finalizará el 30-11-2020.

*Plazo:* Las solicitudes de ayuda podrán presentarse a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y hasta el 30-11-2020.

*Modo:* Los que pidan la subvención tendrán que presentar junto con la hoja de la solicitud debidamente cumplimentada, todos los documentos que se indican a continuación, preferentemente, a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Beasain: http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala o en el Registro del Ayuntamiento, siguiendo el modelo del anexo I.

Beasain, a 3 de junio de 2020.—El alcalde, Aitor Aldasoro Iturbe. (3319)

EK\CV GAO-I-2020-03319